

FITOSANITARIOAK

Laborantza uzta baino lehen eta uztaren ondoren babesteko, produktuak erabiltzen dira, landareak babeste aldera

EGUNERATU ZAITEZ!



EBn ezin da produktu fitosanitariorik erabili, lehenago zientifikoki ebaluatu direnean (EFSA) eta honako baldintza hauek betetzen dituztenean salbu:

- 1 Ondore kaltegarririk ez eragitea kontsumitzaile, nekazari edo hirugarrenen artean
- 2 Ondore onartezinik ez izatea inguru-menerako
- 3 Eraginkorrak izatea



GARRANTZITSUA...

IRAKURRI ETIKETA

ESPARRU ARAUDIA

- > 43/2002 Legea, landareen osasunari buruzkoa
- > 396/2005 Araudia, landare- eta animalia-jatorriko elikagai eta pentsuen HGMak ezartzeari buruzkoa
- > 1107/2009 Araudia, produktu fitosanitarioak merkaturatzeari buruzkoa
- > 1702/2011 Errege Dekretua, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldian behingo ikuskaritzeari buruzkoa
- > 1311/2012 Errege Dekretua, produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena

ERREFERENTZIA DIRA!

ELIKAGAIETAKO HONDAKINAK

- > Elikagaietan aurki daitezkeen plagizidien edukiei plagizida-hondakin esaten zaie.
- > Elikagai gehienek ez dute plagizida-hondakinik, eta halakoak daudenean, kopuruak oso txikiak dira (zatiak, milioko).
- > Elikagaietan pestizidak egotea da Europako kontsumitzailea gehien kezkatzen duen gaietako bat.

Fitosanitarioen hondakinak izan ditzaketen elikagai-talde nagusiak:
Barazkiak, Frutak, Laboreak, Leguminosoak, Animalia jatorrizko produktuak



GARRANTZITSUA!

- > Eskatu aholkuak plagizida eraginkorrena eta arrisku txikiena duena hautatzeko.
- > Fitosanitarioei dagokienez, gomendatutakoak baino kopuru handiagoak erabiltzeak ez du areagotzen uzten emaitza.
- > Plagizida selektiboak erabiltzeak ahalbidetu egiten du izurritea kontrolatzea, beste organismo batzuk errespetatuz. Gainera, erresistentzia maila txikiagoan agertzen da.
- > Uzten errotazioa oso erabilgarria da izurriteen aurkako borrokan.
- > Etiketa osoa irakurtzea eta bertako aholkuei jarraitzea, plagizida egoki eta arriskurik gabe erabiltzeko (dosia, segurtasun-epea, HGM...).
- > Saltzaileari produktuaren segurtasun-fitxa bat eskatzea eta laguntza galdegitea, aurkezten den informazioa ez baduzu ulertzen (honako hauei buruzko informazioa: produktuen arriskua, hondakin kudeaketa, lehenengo sorospenak eta datu fisiko eta kimikoak).
- > Saihestea, ahal den neurrian, metatzen diren eta biodegradatzen gaitzak diren produktuak.
- > Fitosanitarioak leku fresko, ilun eta ondo aireztatu biltegitratzea.
- > Ontzi hutsak ondo kudeatzea.
- > Materialak eta ekipok garbitzea, uraren ibilguak eta ingurumena kutsatu gabe.

HONDAKINEN GEHIENEZKO MUGAK (HGM) AINTZAT HARTU!

> Zer dira?

HGMa da elikagai edo pentsuetan legez onartutako plagizida-hondakin gehienezko muga, 396/2005 zenbakiko Araudiaren (EB) arabera ezartzen dena.

- > HGMak ezartzeko, oinarri gisa hartzen dira nekazaritza-jarduera egokiak eta kontsumitzaileen espazio txikiena, kontsumitzaile guztiak babeste aldera (baita minberenak ere: haurrak, barazkijaleak, haurdunak...).
- > Europako Batzordeak ezartzen ditu elikagai eta pentsu guztietako HGMak.
- > HGMei buruzko datuak Europar Batasunaren pestiziden datu-basean aurki daitezke.

> Nola kontrolatzen dira HGMak?

Urte anitzeko programa erkide eta nazionalen bidez, estatu kideek plagizida-hondakin kontrolak egiten dituzte, egiaztatze aldera HGMak betetzen direla (laginak hartzea; ageri diren plagizidak aztertzea, identifikatzea eta zenbatzea).

Bazenekien arazoak agertu ohi direla...?

- > Uztan baimendu gabeko produktuak erabiltzen direnean.
- > Gomendatutako dosiak gainditzen direnean.
- > Tratamenduaren eta uzta biltzearen arteko segurtasun-epea errespetatzen ez denean.
- > Plagizidak beharizatik gabe eta behin eta berriz erabiltzen direnean.



PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA IRAUNKORRA

> Erreferentziatzeko araudia: 1311/2012 ED


> Izurriteen Kudeaketa Integratua (IKI):

Ustiategi profesional guztiak bete behar dituzte IKIaren hatsareak.

Aholkulariaren irudia ezartzen da, ustiategietan IKIa ezartzeko oinarritzko elementu gisa. Aholkularitzak honako hauek dakartza: kontratu bat, aholkuak jasotzen dituen ustiategiaren deskribapena eta jarduera fitosanitarioen erregistroa.

- > Aholkularitza izan behar duten ustiategiak: ROPOan izena emana duen aholkulari bat eta aholkularitza-dokumentazioa izan behar dituzte. Orobat, IKIaren gidei jarraitu behar diete.
- > Aholkularitzarik behar ez duten ustiategiak: aintzat hartu behar dituzte IKIaren gidak.

> Landa-kaiera:



> ROPO: Defentsa fitosanitarioko tresnen ekoizle eta operatzaileen erregistro ofiziala

Honako jarduera hauetako edozein gauzatzeko, nahi-taetzkoa da ROPOn izena emana izatea:

- > Defentsa fitosanitarioko tresnak hornitzea (ekoizleak, banatzaileak -saltzaileak-, logistika-enpresak eta biltegitratzeaz arduratzen diren enpresak).
- > Tratamendu fitosanitarioak egitea.
- > Aholkularitza.
- > Erabilera profesionaleko produktu fitosanitarioak manipulatzeko eta erabiltzea.

Kanpoan gelditzen dira erabilera ez-profesionalerako baimendutako fitosanitarioen saltzaileak.

KONTSULTAK EGITEKO DATU-BASEA EGON ZAITEZ EGUNERATUTA!

- > Pestiziden hondakinak europar batasuna
- > Produktu fitosanitarioen erregistroa - MAGRAMA
- > ELIKA - Nekazaritza
- > Legeria - ELIKA

Argitaratuta:
2014ko
Maiatzan